

HIZKUNTZA POLITIKA. «Nafar guztien hizkuntza eskubideen defentsan», erantzukizuna beren gain hartu dute

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

Nafarroan inoiz egin den manifestaziorik handienetakoa egin eta ia urtebetera, 640 udal hautetsik eta Oinarriak elkarguneak gizartearen elkarretaratzerako deia egin dute berriro, euskararen normalizazioaren eta hizkuntza eskubideen ezagupenaren alde.

Manifestazioa hilaren 22an egingo da, Iruñeko Zezen Plazatik abiatuta eta *Euskara, eskubidea lege* lemapean. «Nafar nortasunaren aurka eginiko erasoak salatu», eta, hizkuntza eskubideen onarpen, garapen eta bermetik abiatuta, Nafarroa kultur aniztasunaren orube bat izan dadin bultzatzea dira xede.

27.000 lagun aurtengo otsailaren 24an

Aurtengo otsailaren 24an egingo den manifestazioaren atarian hautetsiak eta Oinarriak elkargunea batuta agertu ziren, eta beraiek egin zuten 27.000 lagun inguru Iruñean elkartu zituen manifestaziorako deia.

Geroztik ez dira eten Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikaren arloan hartutako neurriak, eta berriro ere kalera ateratzeko deia egitea erabaki dute.

Nafarroako eremu guztietako 640 udal hautetsik —mendialdeko ia guztiak haien artean— sinatu zuten orduan manifestua hizkuntza eskubideen alde eta euskararen berreskuratzea aldarrikatzeko, eta hainbat konpromiso hartu zituzten.

Atzo, manifestazioa iragaritzeko egindako agerraldian, hautetsien izenean Mikel Petri-

Gizartearen mobilizazioa eskatu dute Nafarroako udal hautetsiek eta Oinarriak-ek

‘Euskara, eskubidea lege’ lelopean manifestazioa egingen da 22an



MIKEL SAIZ
Nafarroako udal hautetsien ordezkariak eta Oinarriak elkarteko kideak agertu ziren prentsaren aurrean.

rena Iturengo zinegotziak adierazi zuen ordukoa ez zela izan aldarrikapen hutsa, eta konpromisoak berretsi zituen.

Haien artean dira euskararen oroimen historikoa berreskuratzea eta zabaltzea; herritarren eta

udalen arteko harremanak hiritarrek aukeratutako hizkuntzan egitea; euskararen alde ari diren taldeei babesa eskaintzea; errotulazioak eta inprimakiak euskaraz ere egitea; eta ofizialtasuna Nafarroa osora zabal-

tzea. «Hautetsi eta herritarren ordezkari garen neurrian, euskararen aldeko mobilizazio sozial hau deitzea ere gure erantzukizuna dela uste dugu».

Petrirenarekin batera, bertan egon ziren, besteak beste, Mai-

EUSKARAREN LEGEA

Hilaren 15ean hamabost urte beteko ditu Nafarroa hiru eremutan banatu zituen lege eztabaidatsuak

te Mene Arangurengo zinegotzia eta Francisco Jesus Gil Puiuko alkatea —biak independenteak—.

Duela 15 urteko salaketak, «erabateko gaurkotasuna»

Oinarriak elkargunearen izenean Mikel Aldasorok gogoratu zuen hilaren 15ean beteko direla hamabost urte Euskararen Legea onartu zenetik, eta azpimarratu garai hartan egindako kritikak eta salaketak «erabateko gaurkotasuna» dutela egun.

Aldasorok adierazi zuen urte guztietan egin aurrerapenak —Hezkuntza eta Osasun zerbitzuak aipatu zituen—, «herriaren kontzientziak eta gizartearen bultzadak» eragin dituztela, eta azken aldiko neurrien aurrean konpromisoa eskatu zuen.

«Geroz eta gehiago dira Nafarroako Gobernuaren politikak asaldatzen dituen hiritarrak, eta guk lanerako konpromisoa indartuko dugu, euskararen jazarpen itsuari irmotasunez aurre egiten dioten nafarrak geroz eta gehiago izan daitezten».

Hautetsiek eta Oinarriak elkarguneak atxikimendu bilketa egingo dute manifestazioaren eguna bitartean, joan den otsailko elkarretaratzearen arrakasta gogoan.

ELKARRETARATZEAK. Bertako hirurogei taldek bat egin dute deialdiarekin

Hizkuntza eskubideak bermatzeko manifestazioa antolatu dute gaur Lizarran

Erredakzioa | IRUÑEA

Lizarrako Euskara Batzordeak «hiritar guztion hizkuntza eskubideak bermatzeko» manifestazioa antolatu du gaur, arratsaldeko 18:30etik aurrera, Foruen Plazatik abiatuta.

Manifestazioa jai giroan egingo da, eta bertan izango dira dantzari, zarpantzar, trikitalari, txistulari eta gaiteroak.

Batzordeak Lizarrako Udala presionatu nahi du horrela, «bere burua behartuta sentitu dezan, hizkuntza eskubideen alde aurrerapausoak emateko».

Udalak egingo duen datorren osoko bilkuran *Lizarrerria por el*

euskera-Tierra Estella euskararen alde taldeak inguruan bildu dituen 2.600 sinadura aurkeztuko ditu orduan.

Horrekin batera, gaiaren inguruan elkarriketa sortu nahi da, eta, horregatik, aurretik egindako lana garrantzi handikotzat jo du taldeak. «Udalaren erantzuna horren araberakoa izango da», adierazi du prentsa ohar baten bidez.

Gobernuaren dekretuen aurka

Lizarrako Euskara Batzordea iaz sortu zen, Nafarroako Gobernuak euskararen inguruan hartutako neurriak eta dekretuak zirela eta.

Administrazio arloan euskararen erabilera arautzen duen foru dekretua onartzearekin batera plataforma sortu zen, euskalgintzako zenbait eragilek bultzatuta, eta manifestua kale-ratu zen orduan.

Bertan dekretuen bidez jasotako neurri multzoak zekarren atzerapauso salatu zuten, eta Euskararen Legea oztopo handia zela aldarrikatu. Halaber, euskararen aurkako eraso soilik ez, baina «euskararen hautua egiten dugun nafar guztion aurkako ere» bazela nabarmendu zuten manifestu egileek, eta beste legea eskatu zuten.

Arlo ezberdinetako 60 taldek sinatu zuten idazkia, eta sinadura biltzeari ekin zitzaion ondoren. 2.600 baino gehiago jaso zituzten bultzatzaileek.

Orain, Udalaren konpromisoa lortu nahi dute.

SALAKETAK. Zaldiko Maldikok banatzen du

Nafarroako Gobernuari emango diote aurtengo Asto Masto Saria

Erredakzioa | IRUÑEA

Euskararen onerako edo kalterako nabarmendu diren gizabanako, kolektibo edo erakundeetako urtero banatzen zaizkien Asto Masto eta Zaldiko Maldiko sariak erabaki ditu jada Zaldiko Maldiko Elkarteak.

Txarrerako nabarmendu direnentzako, Asto Masto Saria —Gorotz Joarea banatzen da— UPNren Gobernuak jasoko du aurtun, «lagundu eta bultzatu ordez, etengabe aurkako neurriak hartzen ari baita».

Elkarteak kontuan hartu ditu Euskaltzaindiaren diru laguntzen murriztea, hedabide eus-

kaldunen egoera, euskararen normalizazioa galarazteko dekretu «lotsagarriak», eta hizkuntza erabilera eta bizitza publiko eta ofizialetik desagertzeko saiok.

Zaldiko Maldiko Saria —lamiaren urrezko orrazia— etorkin euskaldunei emango diete, «adibide galanta emateagatik Nafarroaren izena gora eta behera erabilia, bertako hizkuntza ikasi eta erabiltzeko ahaleginik egiten ez dutenei».

UEUk ere aipamen berezia jasoko du. Aurtun UEUren 25. urteurrena da, eta jakintza arlo honetan «ezinbesteko» lana egingo du, elkarrearen ustez.